

### 3. ELKARTEAK

Erabilitako elkarte guztiak elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak dira. Hau da, ez gara hauen lehiakideak, eta erabilera honetan guztiak ateratzen gara irabazle, bata besteari hornituz. Baina, noski, gurea dena babestuz, gure zerbitzua eskuragarriena eta kalitate handienekoa izateko.

Ikastetxeetan ikasleei jakinaraziko dizkiegu gure zerbitzuak, bertan hitzaildiak eta tailerrak eginez. Ikasleak lagundu nahi dituzten ikastetxeak dira, eta hala guk bezero anitzagoak izango ditugu. Ikastetxeetan hitzaildiak emango ditugu, ikasleak motibatzen beharrezkoa izatekotan gure zerbitzua erabiltzea arazorik gabe. Azalduko dizkiegu gure zerbitzuak, eta horrez gain, animatuko ditugu gazte ezagun baten bat badute, gure zerbitzua aipatzea. Guzti hau, ikasleei osasun mentalari buruz informatzen eta kontzientzitzen dugun bitartean, noski, hori da gure prioritatea.

Zerbitzu sozialekin kontaktatuko dugu ere, beraiekin dauden eta atentzioa behar duten gazteak guregana etorrazteko. Umezurtzei, txiroei eta bestelako beharrak dituzten gazteei ere arreta emango diegu.

Bestalde, psikologo autonomoek haien lana egin ahal izango dute diru-sarrerak lortuz, eta guk kalitatezko zerbitzu-kidea izango dugu. Hauei dagokionez, langabezia dauden psikologoak hautatuko ditugu, alde horretan haiei ere laguntza emateko.

Landa etxeekin ere harremanetan jarriko gara, antolatzen ditugun topaketak bertan egiteko. Ekintza hauetan biak irabazle aterako gara, guk saio erakargarri hauekin arrakasta izan dezakegulako eta haiek alokairu gehiago izango dituztelako. Gure bereizgarritasuna kalitatezkoa izan dadin, landa etxeen aukeraketa garrantzitsua da. Nongo etxeak eta nora joan txangoetan bezeroek aukeratuko dute, eta eremu hartako alokairuak kontuan hartuz, alokairua aukeratua izango da eta txangoa egingo da. *Baiolei* landa etxea hautatu dugu momentuz, han hainbat ekintza prestatzeko. Azpeitian, Gipuzkoan dago. Prezioak eta tarifak jakinaraziko ditugu behin bezeroen arabera txangoak hautatutakoan, baina batzbesteko prezioa proposatzen dugu Azpeitiarako (40€). Bestelako ekintzak ere aurrera erango ditugu irteera hauetan, adibidez, yoga tailerrak guztion artean ikas dezagun. Horregatik, ikastaro hauek eskeintzen dituzten profesionalekin ere kontaktatuko dugu.